

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Aiarako Udalaren 2020ko otsailaren 20ko dekretuaren laburpena, zeinak kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloetan ari diren udalerriko elkarteei eta taldeei 2020. urtean dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak onetsi zituen

DDBN(Identif.): 523249

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdns-trans/GE/es/convocatoria/523249>)

Lehenengoa: Onuradunak

Dirulaguntza eskatu ahal izango du irabazteko xederik gabeko edozein elkartek eta/edo partikularrek, baldin eta interesa badu kultur, kirol eta gizarte programak edo jarduerak sustatzeko 2020an zehar, Aiarako udalerrri osorako onura publikoko edo gizarte intereseko jardunak sustatzea dutenak helburu, betiere oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Etxaurren ikastolako gurasoen elkartea eta Aiarako irakaskuntza zentroak ere onuradun izan daitezke, baldin eta deialdi honetan ezarritako xedeetarako erabiltzen badituzte dirulaguntzak, eta diruz lagundutako jarduerak eskola eta irakaskuntza esparrutik kanpokoak badira.

Halaber, Olentzero eta Erregeen desfilea ospatzeko dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte administrazio batzarrek, baldin eta deialdiaren helburu berberak badituzte.

Bigarrena: Xedea

Udal programen osagarriak diren programak garatzea, hain zuzen ere, eskatzaileek sustatutako kultura-, kirol- eta gizarte-arloko jarduerak, jarduera publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak sustatzea helburu dutenak, eta, horrela, udaleko atalek beren jarduera eremuetan aurreikusitako helburuak lortzen laguntzen dutenak.

Hirugarrena: Oinarri arautzaileak

ALHAOn argitaratuko dira, bai eta DDBNn ere.

Oinarriak eta eskaera eredia Aiarako Udalaren web orrian daude eskuragarri: www.aiaarakoudala.eus.

Laugarrena: Zenbatekoa

Deialdia 35.000 eurekin dago hornituta.

Elkarteei, 2020an jarduerak eta proiektuak egiteko, gehienez ere 6.000,00 euro eskatu ditzakete.

Bosgarrena: Eskaerak aurkezteko epea

Hilabete, deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik.

Seigarrena: Beste datu batzuk

Eskabidea aurkeztean, hari dagozkion eranskinak beteta aurkeztu beharko dira, eta justifikagiria aurkezten denean, justifikazioari dagozkionak.

Justifikagiria 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen (egun hori barne) aurkeztu beharko da.

Arespalditza, 2020ko irailaren 10a

Alkate-lehendakaria

GENTZA ALAMILLO UDAETA